

ELA, KUTXA BANK BANKUAREN SORRERA DELA-ETA

2011ko irailaren 21a

O- SARRERA

ELAK bere jarrera adierazi izan du Kutxa Bank izeneko bankua sortzeko izan den prozesuan; banku berria BBKk, Kutxak eta Vitalek Cajasur bereganatu zuen BBK SAU bankuarekin bat egitean sortu da.

Azken hiletan hainbat agiritan kargu hartu diogu prozesua egiteko erari (gardentasunik eta kontsultarik gabea izan baita). Halaber, behin eta berriz agertu dugu hautatu den bat egiteko moduaren aurkako jarrera, bankua sortzearen aurkakoa alegia, horrek dakarrena medio. Kutxetako zuzendaritzei, gainera, exijitu izan diegu erakunde berrian Hego Euskal Herrian lan egingo dutenen baldintzak esparru honetako hitzarmen batean finkatuko direlako konpromisoa.

Agiri honetan gure jarrera horiek ez ditugu berriro jasoko; gure asmoa KUTXA BANK benetan zer izango den azaltzea da, azterketa eguneratuta.

I- TESTUINGURUA: FINANTZA-KRISIA ETA KUTXEN BANKARIZAZIOA

Finantzak egun honako egoeran daude:

- Finantza-sistemaren osasuna oso zalantzazkoa da. Ikertzaile eta arduradun politiko askok aitortzen dute ez dela gardentasunez azaltzen finantza-erakundeak zein egoeratan dauden. Asko bat datoz esaterakoan errealitatea esaten dena baino askoz okerragoa dela, eta "estres frogak" -hauek berriro aldatu beharra dagoela erabaki dute- ez dutela zehatz islatzen higiezinaren balio galera edo ez ordaintzearen arrisku erreala.
- Osasun txar hori adierazten dute, adibidez, erakundeen esku jartzen ari diren dirutzak; hala, Europako Banku Zentralak, AEBetako Erreserba Federalak, Ingalaterrako Bankuak, Japoniako Bankuak eta Suitzako Bankuek esku-hartze koordinatua egingo dute: hurrengo hiletan aurrez ezarritako mugarik gabe mailegatuko dute dirua.
- Finantza-erakundeek kreditu oso gutxi eta oso garesti ari dira ematen. Finantza-sektoreak bere eginbehar nagusia, familiei eta enpresei kreditua ematea, gero eta utziagoa dauka. Maileguetarako interes-tasa oso altuak ezartzen dituzte, eta kreditua gero eta gehiago mugatzen dute. Honela ekonomia produktiboak okerrera egiten du, finantza-erakundeek ez baitio dirurik eskaintzen hainbat eta hainbat proiekturi, hauek zentzuzko eta bideragarri izanagatik.
- Egungo krisia besteak beste finantza-erakundeen kreditu eta espekulazio politiken ondorioa da. Gobernuak laguntza, berme eta beste bide batzutatik erakunde hauen esku 3,1 bilioitik gora jarri dute (hots, espainiar estatuko urteko BPGaren hiru halakoa). Diru publiko kopuru honen ondorioa da orain "zorraren krisia" esaten diotena, zeinak bera ordaintzearen langile-klaseari ezarritako murrizketa sozial eta laboralak ekarri baititu.

- Gobernuak prestatzen ari dira finantza-erakundeei transferentzia ekonomiko gehiago egiteko; azken aldiko historia errepikatu eta areagotu egingo da, beraz. Halaber, kreditua are gehiago murriztuko dute. Bankuak berkapitalizatzeko diru publikoa erabiltzeko asmoa dute. Defizit publikoaren mugak aintzat hartuta, eta jakinik zerga-politika bidezko bat baztertu egiten dela, horrek murrizketa sozial gehiago ekarriko du.
- Espainiako Gobernuak azken urteetan onartu dituen arauak –aurrezki-kutxetako zuzendaritzekin hitzartuak, euskal kutxetakoak barne– kutxen bankarizazioari bide eman diote, beroietan kapital pribatua sartzeko aukerari; hots, kutxa eta bankuen arteko desberdintasuna gero eta txikiagoa izango da. Nolanahi ere, legeak ez du esaten banku bat sortzea derrigorrezko denik; hau aukeretako bat besterik ez da, eta ez sozialena.
- BBKk Caja Sur erosteak edota EAEko kutxetako presidenteei iragarri dutenak –etorkizunean filial, erosketa edo aliantza bidez hazteko asmoa– argi erakusten du zein bidetatik jo nahi duten. Bildurekin hitzartu dutena ikusirik, bide beretik doaz.
- Une honetan askoz nabarmenagoa da aurrezki-kutxek beren gain hartu beharko luketen egitekoa, finantza-erakunde publikoena, erabat utzita dagoela.

II- LAN-HARREMANAK KUTXA BANKEN: ESTATU-ESPARRUA LEHENIK

Aurreko agirietan aipatu izan ditugu bat egitearen fruitu izango den erakundean ELAk lan-harremanei buruz zer espero duen. Lan-baldintzen inguruko aldarrikapen konkretuez gainera, ELAk azken urteotan kutxetako hitzarmenetan euskal esparrua aldarrikatu izan du Hego Euskal Herrian lan egiten duten guztientzat.

Hain zuzen, oraingo bat egite prozesuan, irailaren 15ean bildu zen Mahai Laboralean esan genuen kutxek gai honekiko kontsulta lotesle bat onartu behar zutela, baina enpresek hau ez zuten onartu.

Kontu hau ez da berria. Esaterako,

- euskal langileen ordezkari sindikal gehienek bertoko hitzarmen bat negoziatzen hasia eskatu zuten, legeetan ezarritakoa betez. BBKko zuzendaritzak ukatu egin zuen aukera hau. Nahiago du negoziatzeko estatu-esparrua, horrela lan-baldintza okerragoak ezar baititzake. Gai hau auzitara eraman dugu.
- Uko honen ondoren, BBKko euskal langileen %69ak bat egin zuen bertoko hitzarmen bat negoziatzeko eskariarekin, baina erakundeak ez du errespetatzen.

Kutxekiko harremanetan, ELAk ikusi du hitzarmen propioa lortzeko helburura jotzeko ez dagoela borondaterik.

BBK, Kutxa eta Vital batuta ELA sindikatu nagusia da Hego Euskal Herrian: 32 ordezkari eta botoen %30,29 ditu. LABekin eta ASPENekin batera esparru honetako botoen %51,84 daukagu.

Estatuko langile guztiak aintzat hartuz gero, hauteskunde sistema medio, paradoxa bat gertatzen da: ELAk eta LABek batera CCOOek baino boto gehiago jaso dute (%36,12 eta %35,53, hurrenez-hurren), baina CCOOek 89 ordezkari ditu, eta ELAk eta LABek batera, 50. Begibistakoa da hauteskunde sistemari esker estatu-esparruak CCOOei gehiegizko ordezkari ematen diola, zeina ez baitator bat langileen babesarekin.

ELAren irudiko, Kutxek eta Bilduk sinatu zuten akordioak gauzak bere horretan uzten ditu puntu honekiko. Hain zuzen, akordioak dio "Bankuak erabakitzeke esparruari buruz langileek erabakitakoa onartuko duela agintzen du". Idazkera hau oso anbigua da, izan ere:

- Ez ditu Hego Euskal Herriko langileak aipatzen. Ez da inondik ere euskal esparrua bermatzen, langileen erabakia hala aipatuta, lurralde-esparrurik zehaztu gabe, uler baitaiteke espainiar estatuko bulego guztietan daudenei buruz ari dela.
- Ez da zehazten langileen erabakia nola adieraziko den. ELAk eta LABek Hego Euskal Herrian erreferendum lotesle bat deitzea exijitu dute, bertan lan egiten dutenen hitzarmena zein esparrutan negoziatu behar den ebazteko. Akordioan, ordea, ez da erreferendumik aipatzen, eta uler daiteke langileen erabakia sindikatuak adierazitakoa izango dela (estatu mailan, noski).

Mahai Laboralean sinatu den akordioak islatzen du negoziatzeko estatu-esparruan sakontzeko borondatea; mahai horretan kutxek eta estatu mailan nagusi diren sindikatuak (CCOO, Pixkanaka eta Vitaleko Grupo Independiente) erabaki dute negoziazioei ekingo dietela 2013 amaitu baino lehenago Kutxa Bankeko langile guztientzako estatu-esparruko hitzarmen kolektibo bat adosteko. Hots, Bilduren eta kutxen arteko akordioa ezagutzera eman duten aste berean Mahai Laboralean beste akordio hau sinatu da, eta honek argi uzten du estatu mailako hitzarmena dela helburua. Gertakariak ELAri arrazoia eman diote Bilduk sinatu zuen akordioari buruz zuen iritzia dagokionez.

ELAren ustez, Bilduren jokabidea gai honetan honakoa izan da:

- Gizarteari sinetsarazi nahi izan dio negoziatzeko euskal esparrua aintzat hartuko dela lortu izana. Alderatzekotan, antzeko zerbait litzateke esatea Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea espainiar parlamentuaren edo alderdi politikoaren esku utzi dela.
- Bilduk esan duen legez, berak sinatu duen akordioak erreferenduma aintzat hartzea esan nahi badu, akordioa hautsitzat jo behar izango zukeen. Baina ez da halakorik gertatu.
- Kutxek eta Bilduk bazekiten erakundeon politika gai honekiko zein izan den, baita beren borondatea ere. Hortaz, Mahai Laboralean iritsitako akordioa ez da inola ere ezustean etorri ELArentzat, eta Bildu zein kutxentzat ere ez litzateke harritzekoa izan beharko.

Deigarria da ere EAJk Eusko Jaurlaritzaren Kutxei buruzko legegaiari kritika egitea, hain zuzen kutxak ezarrita dauden hirietako EAetik kanpoko udalei zer esana ematen dielako, izan ere, finantz-erakunde hauek horrelaxe jokatzen baitute praktikan ordezkari-tza sindikalari dagokionez.

III- KUTXABANKEN KAPITAL PRIBATUA SARTZEKO AUKERA AHALBIDETZEN DA, BALDINTZA BATZUREKIN

Aurreko akordioak zein Administrazio-Kontseiluek azkenean onartu zutenak diote erakundearen borondatea dela Kutxabankeko Sozietate Zentralaren %100 bere esku izatea.

Bat egiteko hastapeneko kontratuak zioen, Kutxen Legearen harira, nolana ere %51 izan behar zutela beren esku, eta kapital pribatuak ezin zuela %49 gairiditu (Kutxen legeak dio kapital pribatua ehuneko hortatik gorakoa bada fundazio bat sortu behar dela).

Bildurekin sinatutako akordioak atal hau aldatzea dakar: sozietate zentralaren akzioen %100 kutxen esku izango delako konpromisoa jasotzen da. Alabaina, konpromisoa behin eta berriz zehazten da:

- Konpromisoa %100 izatea da, "baldin eta ezarri beharreko beste edozein araudik, edota ahalmena duen erakunde zein administrazioen batek aurkakoa exijitzen ez badute". Behin eta berriz aipatzea gauzak horrela izango direla, baldin eta legeak edota beste erakunde batzuk besterik esaten ez badute, hondorik gabeko zakua da, kontrako erabakiak hartzeko aitzakia ematen dutenak.
- Kapital pribatuaren sarrera edo Burtsara irteteko aukera berariaz aipatzen dira, baina egia da ere aipatzen dela horretarako hiru kutxen oniritzia beharrezkoa izango dela.
- Ez zaio inongo mugarik ezartzen filialen bidez gerta daitekeen kapital pribatuaren sarrerari.
- Autokartera aipatzen denean saihestu egiten da legeak galarazi egiten duela hura kapital sozialaren %10etik gorakoa izatea.

IV- GIZARTE-EKINTZA: ETEKINEN %30, KUTXA BANKEK KAUDIMENA NAHIKOA DELA IRIZTEN BADU

Bat egitearen eta banku bat sortzearen ondorioa da kutxentzat egiteko bakarria geratzen dela, gizarte-ekintzaren kudeaketa. Finantza-jarduerak, aktiboak eta langileak (gizarte-ekintzakoa izan ezik) bankura pasatzen dira.

Bankarizazio prozesuari egiten zitzaion kritika orokorra eta oso zabaldua zen kutxen gizarte-ekintza gutxitu egingo zela, baina ez soilik tamaina murriztearen ondorioz. Kontua ez baita soilik gizarte-ekintzara zenbat diru bideratzen den (edota atal honetan zein programa sartzen den). Beste edozein bankuren gisan lehiatzeak funtzio soziala galtzea dakar, ekoizpen-sarearekiko edota herritarren

beharrizanezko konpromisoa ahultzea. Honek esan nahi du emaitza-kontua maximizatu beharra gailentzen zaiola jatorrian kutxek zuten asmoari, hots, solidaritateari eta esku-hartze ekonomikoari. Beraz, erabaki den bankarizazioa hauekiko guztiekiko begibistako atzerakada da.

Gizarte-ekintzari dagokionez, akordioak dio hartara bideratuko dela gutxienik bankuaren etekinen %30, "betiere Sozietate Zentralaren finantz-kaudimenak eta ezarri beharreko arau erregulatzailerik ahalbidetzen badute". Hots, gizarte-ekintzarako portzentaje txikiagoa uzteko aukera irekitzen da, zalantzarik esamolde batekin, finantz-kaudimenak aukera ematea. Harritzekoa da ez definitzea finantz-kaudimena zer den, erreferentzia gisa har daitezkeen ratioak badauden arren, edota zenbaki-kopuru jakinik ez ematea. Honek esan nahi du erakunde berriaren zuzendaritzak nahierara erabakiko duela.

Aipatu beharrekoa da ere "ezarri beharreko arau erregulatzailerik ahalbidetzen badute" esaldia. Edonork ikus dezake honek gizarte-ekintza murrizteko aukera ematen duela, arestian aipatu dugun legez.

Egia da Bildurekin sinatu aurreko akordioan etekinen %30a gizarte-ekintzara bideratzeko konpromisoa hiru urtetara mugatuta zegoela, eta oraingoan muga hori ez dagoela, baina gainerako testuan ez da aldaketarik izan. Horrenbestez, Bildurekin sartutako hobekuntzak ez du kentzen arestian aipatu den sakoneko kritika.

Gainera, aipa daiteke azken akordioan aurreko testuaren zati bat ere jasota dagoela, hots, datozen hiru urteetan baldintza jakin batzuk betez gero portzentaje hori gaindituko delako konpromisoa adierazten da. Honek esan nahi du indarrean diren betebeharren ondorioz agian %30a gainditzea ezinbestekoa izango dela. Beraz, gizarte-ekintzara etekinen %30 bideratzeak ez du, prezeski, atal hau indartzeko asmorik adierazten, kontrakoa baizik.

V- ONDORIOAK

ELA Kutxa Banken sorreraren aurka dago, honako arrazoiengatik:

- Finantza-sektorean hasitako erreformen harian beste urrats bat da; horien xedea sektore guztia privatizatzea da, eta kutxen sektoreari eraginkortasuna kentzen diote, hauen helburua arlo pribatuaren finantza-hegemonia orekatzea izan beharko lukeenean. Krisia finantzen desarautzeak, ekonomia espekulatiboaren pisu gero eta handiagoak eta merkatu librearen ideologiaren nagusitasunak ekarri du. Kutxen pisu handiagoa eta kontrol publiko areagotua beharrezkoa zen, eta horren ordezkari bankarizazioa erabaki dute.
- Egungo testuingurua privatizazioena izanik, behin eta berriz esatea araudiak edo erakunde jakin batzuk agintzen dutenaren esanetara egongo direla adierazten du erakundeek badakitela norabide horretan joatekoak direla.

- Bankarizazioa aurrez hartutako hasierako erabakia izan da, eta beste aukera batzuk baztertu egin dira. ELAren iritziz kutxak bat egitea eta kutxa berri bat sortzea zela irtenbiderik egokiena. Banku bihurtzearekin desarautzea gero eta handiagoa den une honetan erreferentzia bat galtzen da.
- Kapital pribatua sartzeko aukera ez da ixten. Aitzitik, irekita uzten da eta egiteko bideak ere zehazten dituzte.
- Tamainaz haztea ez da inongo irtenbidea. Erakunde erraldoiak jausi izan dira eta, aipatu dugun legez, Europako banku handien osasuna ez da inola ere ona.
- Aurrezki-kutxen egiteko soziala kaltetuta geratzen da, eta ez bakarrik gizarte-ekintza. Atal honetara etekinen %30a bideratzea Kutxa Banken esku izango da, eta beronek beti izango du konpromisoa saihesteko modua, finantz-kaudimena hobetu beharra argudiatuta.
- Bat-egite kontratuak kutxetako Hego Euskal Herriko langileei ez die hitzarmen propio bat izateko eskubiderik aitortzen. Gainera, Mahai Laboraleko akordioak zehazten du kutxek 2013 amaierarako estatu mailako hitzarmen bat sinatzeko konpromisoa hartu dutela, Kutxa Bankeko langile guztientzat.
- Prozesua ezkutukoa izan da, goitik behera, inongo eztabaida sozialik gabea. Gauzak egiteko era hau, erakunde sozial eta sindikalak aintzat hartzen ez dituenak, kutxen hautua izan da, baina baita alderdi politiko guztiena ere. Bilduk akordioa sinatu aurretik ez du ELAren hitz egin.
- Ez da bermatzen gizarte-ekintzarako baliabide egonkorrik.
- ELAren ustez akordioak onak edo txarrak edukien arabera izango dira, ez sinatzaileak nor diren ikusita.

Horregatik guztiagatik, ELAk ezezko botoa emango du bat-egite honen aurka, parte hartzen duen Kutxetako Administrazio-Kontseiluetan, zein Batzar orokorretan.